

ERENTXUN

– ARABA / ÁLAVA –

Erentxun herria Iruraitz-Gauna udalari dagokio, Aguraingo koadrilaren barruan. Gasteizetik 14,6 km-ra dago. Gasteizen, N-104 errepidea Donostiarako norabidean hartuta, eskuineko desbideratzea hartu behar da, Lizarrarantz, Elorriaga igaro ondoren, A-132 errepidetik aurrera eginez. Egiletan ezkerreko irteera hartu behar da, herrira zuzenean doana.

Erentxun Donemiliagako Reja izeneko dokumentuan ageri da, *Herenizgubin* izenarekin, Alfoz de Hiraszaeza izenekoaren barruan. Hiru hesi eman zituen Habaunza herri hustuarekin batera. Azken horri oso lotuta egon zen, eta hori dela bide, bien izenak lotuta ageri dira askotan, nukleo bakar bat balira bezala, Aznar gotzainaren zerrendetan, *Aucerenchun* moduan, eta XIII. mendeko *Libro Rubro de Iranzu* lanean, *Auacherenchun* moduan.

La localidad de Erentxun pertenece al ayuntamiento de Iruraiz-Gauna dentro de la Cuadrilla de Salvatierra. Se encuentra situada a 14,6 km de Vitoria. Desde allí, saliendo por la N-104 hacia San Sebastián, se toma el desvío a la derecha hacia Estella, tras pasar Elorriaga, circulando por la A-132. En Eguileta se toma la salida a la izquierda, que conduce directamente al pueblo.

Erentxun aparece en el documento de la Reja de San Millán con el nombre de *Herenizgubin* dentro del Alfoz de Hiraszaeza, contribuyendo con tres rejas unido al despoblado de Habaunza, con quien mantuvo tal implicación que sus nombres aparecen unidos como si fueran un solo núcleo en las listas del obispo Aznar, como *Aucerenchun* y en el *Libro Rubro de Iranzu*, del siglo XIII, como *Auacherenchun*.

San Andres eliza / Iglesia de San Andrés

OINPLANO LONGITUDINALA eta nabe bakarra duen eraikina da. Goiburu poligonal, presbiterioa eta nabearen lehenengo tartea, nerbiodun gangekin estalita daudenak, XIII. mendekoak dira, eta gainerako eraikina XVI. mendekoa da. Aipagarriak dira korua, estilo platereskoa, eta erretaula nagusia, XVIII. mendekoa.

Arabako parrokien artean, Erentxungoa, Arluzeakoa (apur bat lehenagokoa), Monasteriogurengoa eta Aiarakoa dira aldi erromanikoko elizpea kontserbatzen duten bakarrak. Elizpea tenpluaren hegoaldeko paretari atxikita dago. Hiru arku zorrotz ditu –erdikoa zabalena– XVIII. mendean itsutu zituztenak harlanduzko paretekin. Horietan idi-begiak ireki zituzten eta muturretan sarrerako bi ateak daude. Elizpearen kanpoaldean lau zutabe-erdi daude, basamentu sendoen gainean, kontrahorma moduan kokatuta, eta landare-gaiko kapitelak dituzte amaieran, eskuineko zutabeak izan ezik, horretan emakumezkoen buruak baitaude apur bat hondatuta, baita begi handiko maskaroi bat ere. Elizpeko teilatuaren azpian txakurren ilara batek lasterka egiten du apaindurarik gabe, eta ezkerreko muturrean xake-itxurako erlaitzaren hondarrak ikusten dira. Arku zorrotzek ixten dituzten paretan alboan, elizpeko ate erromanikoen euskarrien, zutabetxo txikien eta kapitel bgetalen hondarrak ikusten dira.

SE TRATA DE UN EDIFICIO de planta longitudinal y nave única. La cabecera poligonal, el presbiterio y el primer tramo de la nave, cubiertos por bóvedas nervadas, corresponden al siglo XIII, mientras que el resto de la construcción es ya del siglo XVI. Destaca el coro, de estilo plateresco, y el retablo mayor, del siglo XVIII.

La de Erentxun es una de las pocas parroquias alavesas que, junto con Arluzea, algo anterior, Monasterioguren y Ayala, conservan el pórtico de época románica. Éste se encuentra adosado al muro sur del templo. Consta de tres arcos apuntados –el central más ancho– que fueron cegados en el siglo XVIII por muros de sillería en los que se abrieron óculos, y en cuyos extremos se abren las dos puertas de acceso. En el exterior del pórtico se conservan cuatro medias columnas sobre basamentos robustos, colocadas a modo de contrafuertes, que culminan en capiteles de temática vegetal, menos la columna de la derecha, que presenta unas cabezas femeninas algo deterioradas, además de un mascarón de ojos grandes. Bajo el tejado del pórtico corre una hilera de canes sin decoración, y en el extremo izquierdo se aprecian restos de la cornisa ajedrezada. Flanqueando los muros que cierran los arcos apuntados se muestran todavía restos de los apeos, pequeñas columnillas y capiteles vegetales, de las puertas románicas del pórtico.



Elizpearen kanpoaldea

Exterior del pórtico

Barruan, eskuineko bi tarteak arku zorrotz sendoko gangekin estalita daude, eta arku horiek basamentu korrituko pilareen gainean eusten dira; ezkerreko tarteko ganga berreraikita dago. Pilare horietako gehienek kapiteletan gaiak begetalak dira: akantoak trepano lanketarekin, zurtoinak kiribilean, hosto haragitsuak kanporantz jarrita, zartailuak eta loreak. Hala ere, batzuetan animalien buruak ageri dira –idiaren edo zezenaren gazezurak eta felidoak– hostoen artean. Adibide bat aker baten burua da, elizpearen hegoaldean dagoena.

Elizpe horretan tenpluaren jatorrizko portada dago. Portada hori erdiko tartean irekitzen zen eta gaur egun hormatuta dago. Gaur egun, elizaren barrualdera elizpearen ezkerreko tarteko portadatik sartzen da, 1774. urtekoa dena. Portada apur bat zorrotza da, sei arkibolta apaindu ditu, barrutik kanpora, bigarrena, laugarrena eta seigarrena akanto estilizatuekin, hirugarrena eta bosgarrena baketoi leunarekin, eta barrukoa baketoiarekin eta diamante-muturren ilarekin. Deskarga-arkua zurtoin makurrekin eta horietatik ateratzen diren hostoekin apainduta dago. Arkuak akantoen ilara bikoitza erakusten duten kapiteletan oinarritzen dira –gainean inposta molduratuta dutela–, fusteak

Al interior, este espacio conserva aún los dos tramos de la derecha cubiertos por bóvedas apuntadas con arcos gruesos que se apoyan en pilares sobre basamento corrido; la bóveda del tramo izquierdo está reconstruida. Estos pilares presentan en su mayoría capiteles con diferente temática vegetal: acantos con labra de trépano, tallos en voluta, hojas carnosas vueltas hacia afuera, palmetas y flores. Sin embargo, en algunas ocasiones aparecen cabezas de animales –bucráneos o felinos– asomando entre las hojas. Un ejemplo es la cabeza de un macho cabrío situada en el lado sur del pórtico.

Este pórtico cubija la primitiva portada del templo, que se abría en el tramo central y que hoy aparece tapiada. El acceso al interior de la iglesia se realiza hoy por la portada del tramo izquierdo del pórtico, datada hacia 1774. Se trata de una portada ligeramente apuntada, con seis arquivoltas decoradas, de dentro afuera, la segunda, cuarta y sexta con acantos estilizados, la tercera y la quinta con baquetón liso, y la interior con baquetón e hiladas de punta de diamante. El sobarco se decora con tallos curvos y hojas salientes entre ellos. Los arcos descansan en capiteles que muestran doble fila de acantos –con una



Elizpearen barrualdea
Interior del pórtico



Portada
Portada

leunak dira –baten bat falta da– eta harroinetan atzaparrak daude.

Goiburuaren horma-atal nagusiaren kanpoaldean leiho bat ikusten da, elizari atxikitako abade-etxeak ia-ia esaltzen duena. Leihoak erdi-puntuko arkua du asko molduraturako hiru arkiboltarekin. Iparraldeko paretan harburu bat dago, eta emakume baten burua du, buru-estalkiarekin.

Elizpeko eta portadako apaindura-osagaiei erreparatuz, Erentxungo parrokia XIII. mende berantiarrean koka daiteke. Gustu findu eta estilizatua du, gotikotik oso hurbil dagoena.

Testua eta argazkiak: REA

imposta moldurada sobre ellos–, fustes lisos –falta alguno– y basas con garras.

En el exterior del paño central de la cabecera se observa una ventana, casi oculta por la construcción de la casa cural adosada a la iglesia, que presenta arco de medio punto con tres arquivoltas muy molduradas. En el muro norte pervive un canecillo con cabeza de mujer con toca.

Los elementos decorativos del pórtico y la portada permiten datar a la parroquia de Erentxun en un siglo XIII tardío, con un gusto refinado y estilizado, muy próximo ya al gótico.

Texto y fotos: REA

Bibliografía / Bibliografía

AZCÁRATE RISTORI, J. M., 1982, pp. 45-46; CASTRO, C. de, 1915, p. 148, fig. 57; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 264-267; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 150-151; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 371-373, fig. 531-536; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 56-57; VEGAS ARAMBURI, J. I., 1985, pp. 109-116.